



Egizu kontu bizi naizela aterpean baina beti mela-mela. **Zer ote?**



ANNE BASKARAN

# Badator Euskaraldia

# ZORION AGURRAK

## ZOZKETA



Kaixo, MANTANGORRIREN zaleok! Zer moduz zaudete? Irakurri al zenuten lehengo astean **Pirritx, Porrotx eta Marimototsen CD-liburuari** buruzko erreportajea? Ohi bezala, pailazoez bost ale oparitu dizkigute, zuen artean banatzeko. Beraz, **azaroaren 15a** baino lehen **natura** hitza gaitzat hartuta marrazkiak bidaltzen badizkiguzue, aleetako bat zuena izan daiteke! Azaroaren 19an iragarriko ditugu irabazleak. Animatu parte hartzera, eta **zorte on guztioi!**



**Amets Arroyo Iztueta**, 7 urte, Ordizia. Urte askotako eta ondo pasa asteazkenean, artista!! Muxu handi bat **familia guztiaren partez!!** Asko Maite zaitugu!!!



Goizean goiz itzarririk argi bekokia, Ikasten zein jolasten hori irrikia! Liburu, aldizkari edo komikia **Ekaitz** entzatzat irri bat beti da egokia Zorionak, muxu bat, etxeko txikia.

### Hementxe arimen gaueko argazkitxo batzuk.

Elizondoko gurasoen komisiok hainbat ekintza antolatu zituen: tailerrak, kalejira eta ipuin kontaketa, tartean. Gero, eskean ibili ziren.

**Xanduli, manduli kirik ari ximuiek hemen eskari!**



Kaixol! **Tantirumairu ikastolako 3. mailako ikasleak gara.** Gelakoen artean ipuin batzuk idatzi genituen, eta, gero, elkarri oparitu. Tantirubilduma osatzen hasi gara! Aioooooo!



**Orioko Zaragueta IPI Ikastetxean LHko 3. zikloko ikasleak** gustura ari dira tailerretan trebatzen. Eskulanetan nahiz irratsaioak prestatzen bereak eta bi ematen dituzte lanak aurrera atera daitezzen. Sormena eta hizkuntz jarria lantzeko baliagarriak suertatzen dira honelako egitasmoak.

● **Bidali zure gutunak helbide hauetara** ● **Helbide elektronikoa:** [mantangorri@berria.eus](mailto:mantangorri@berria.eus) **Egoitza nagusia:** BERRIA, MANTANGORRI. Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain.

**Argitaratzailea:** Euskal Editorea SM **Lege Gordailua:** SS-616/05 **Zuzendaria:** Martxelo Otamendi **Koordinatzailea:** Ane Insausti Barandiaran  
**Egoitza:** Martin Ugalde kultur parkea. Gudarien etorbidea, z/g. 20140 Andoain **ISSN:** 1699-728x

MUNDUARI ADI

EUSKARALDIA

# Euskara, loratzen

ANNE BASKARAN



1.

## ZER DA?

Euskararen aldeko arieta kolektibo bat da Euskaraldia, eta herritarrek hizkuntza ohiturak aldatzea du xede, euskararen erabilera handitze-ko. 2018an egjin zuten lehenengoz, 2020an bigarrenez, eta aurtengoa hirugarren aldia izango da: azaroaren 18tik abenduaren 2ra egingo dute. *Hitzek ekiteko garaia* lelopean, 16 urtetik gorako pertsonak parte hartuko dute Euskaraldian. Ohitura horiei Euskaraldia pasatuta ere eustea da asmoa.

2.

## NORK ANTOLATZEN DU?

Euskal Herriko erakunde publikoek eta Euskaltzaleen Topaguneak elkarlanean antolatzen dute Euskaraldia. Erakundeek ez ezik, ordea, euskalgintzako dozenaka talde, eragile, herrietako batzorde eta boluntariok ere lan egiten dute, herri herri Euskaraldia posible izan dadin.

ANNE BASKARAN

## MUNDUARI ADI EUSKARALDIA



### 3. ZER DIRA 'AHOBI' ETA 'BELARRIPREST'?

Aurten ere, *ahobizi* eta *belarriprest* rolen artean aukeratu beharko dute parte hartzaileek. Bi astez euskaraz ulertzen dutenekin euskaraz hitz egiteko eta ezezagunei lehen hitza beti euskaraz egiteko konpromisoa hartzen dutenak *ahobizi* izango dira. Euskaraz hitz egiteko gai izan ez arren ulertzen dutenek eta haiekin euskaraz hitz egitea nahi dutenek, berriz, *belarriprest* rola aukeratuko dute.



### 4. ZERTARAKO JARTZEN DITUZTE TXAPAK?

Euskaraldiko parte hartzaileek *ahobizi* eta *belarriprest* jartzen duten txapak eramango dituzte soinean, ikusgai-tasuna izateko. Izan ere, txapa ikustean, jendeak erraz jakingo du euskaraz hitz egin dezakeela hura daramanarekin. Euskaraldian ez ezik, euskaraz hitz egiten den guneetan ere ohikoa da txapak edo txartelak jartzea. Adibidez, medikuarengana joatean eta dendetako atean, sarri ikusten dira «hemen euskaraz» dioten txartelak, helburu berarekin.



●● Norbanakoen izen ematea zabaltzeko egindako ekitaldia, Bilboko Kafe Antzokian, MONIKA DEL VALLE / FOKU



### 5. ZER DIRA ARIGUNEAK?

Euskaraz lasai aritzeko guneak dira *ariguneak*, eta edozein elkarte, talde, denda, enpresa edo eragile izan daiteke. Horretarako, izena eman behar da Euskaraldiko webgunean, eta ariguneen kartela jarri behar da talde edo enpresaren egoitzan. Hala, Euskaraldiak talde eta enpresa handiak ere bultzatu nahi ditu euskararen inguruko konpromisoak hartzera.



2020KO  
EUSKARALDIKO  
DATUAK:

178.184  
PARTE  
HARTZAILEAK



BA AL DAKIZU?

**Esazu hitz bat** du izena aurtengo Euskaraldiko abestiak. Bideoklipa ere egin dute: <https://www.youtube.com/watch?v=PAAV-DoOQzY>

8.000  
ARIGUNEAK

350  
HERRI  
BATZORDEAK

Banderolak sortu dituzte aurten ere, etxeetako balkoiak apaintzeko: Hitzetz ekiteko garaia da

## 5. ZER GEHIAGO ANTOLATU DUTE?

**PANTAILALDIA.** Atzo hasi zen Pantailaldia, Pantailak Euskaraz taldeak antolatutako egitasmoa. Bi helburu ditu ariketak: batetik, euskarazko ikus-entzunezkoen kontsumoa bultzatzea; bestetik, pantailen munduan euskarak dituen gabeziak ikusaraztea, erakundeek pausoak eman ditzaten. Horretarako, ostiralera bitartean, parte hartzaileek sareetan azaleratuko dituzte pantailatiko edukia euskaraz kontsumitzeko dituzten zailtasunak, #Pantailaldia traola erabiliz, eta, gainera Pantailaldiko logoa jarriko dute sare sozialetan.

**GAZTEALDIA.** Euskaraldia hasi baino lau egun lehenago, beste egitasmo bat abiaraziko du Gazte Euskaltzaleen Sareak: Gaztealdia. Euskaraldian parte hartzea eta hizkuntza ohiturak aldatzea ez ezik, ekintzak ere beharrezkoak direla uste dute. Horregatik, *Ekintzez hitz egiteko garaia da* lelopean, euskararekin lotutako esperientziak plazaratzeko egitasmoa antolatu dute: gazteek testigantza eman go dute sareetan, horretarako #EuskarazBizikoGara traola erabilita. Ariketa horren bidez, gazteek euskaraz bizitzeko hautua egitea nahi dute, eta horretarako

## 6. ZER EGIN DAITEKE HAURREKIN?

16 urtetik gorakoek parte har dezakete Euskaraldian, baina **hur eta nerabeek ere badute zer eginik**. Izan ere, Euskaraldiko taldeak unitate didaktikoak prestatu ditu aurten ere, adinaren arabera banatuta, haiekin lantzeko: ariketak prestatu dituzte etxeko eta gelako hizkuntza ohiturez hitz egiteko, ikastetxean Euskaraldiarekin lotutako ekintzak antolatzeko, eta behin Euskaraldia pasatuta hizkuntza erabilera neurtzeko, besteak beste.



dituzten «egiturazko oztopoak» azaleratzea.

**ZAPLA! PODCASTA.** Hizkuntza ohiturak aldatzeko tresnak emateko asmoz, Euskaltzaleen Topaguneak podcast bat ekoitzi du: *Zapla!* EITB Podcast atarian daude saioak entzungai, eta bi atal argitaratu dituzte oraingoz: lehenak, euskaldun izatearen zailtasunez hitz egiten du, eta bigarrenak, berriz, euskaldun baten hizkuntza bidaia kontatzen du.

# DENBORA-PASAK



**1. Ezberdintasunak.** Malenek eta Aitorrek *ahobizi* eta *belarriprest* rolen marrazkiak egin dituzte, baina bi marrazkien artean zazpi ezberdintasun daude. **Ba al dakizu zeintzuk diren?**

**2.**




## Bikote joko.

Euskaraldiko irudiak buruz behera jarrita, Maitanek bitan errepikatzen diren bi irudi ditu eskuetan.


## Zeintzuk dira?





Erantzunak: 3.-Ahozki,  
belarriprest eta argiunea.

HO-BI-A-ZI



RRI-BE-LA-PREST


A-RI-A-NE-GU



3.

**Osatu hitzak.** Nagorek desordenatuta dauden hizkiak ordenan jarri nahi ditu, hitzak osatzeko, baina ez du lortzen. **Lagunduko al diozu?**

## AZOKA



### 'Galtzagorriak dabilta etxean'

Ordu txikitan idazten ari zela, lo seko gelditu zen Xabier. Ahots batzuek esnatu zuten bat-batean. Begiak ireki, eta galtzagorri batzuk ikusi zituen ingurumarian. Lau ziren guztira, bihurriak eta jostariak. Langile prestuak ere baziren, eta buru-belarri lagundu zioten Xabierri. Hauxe duzue haien kontakizuna, guztiz dibertigarria. Ezagutu nahi duzue?

**Xabier Olaso eta Manu Ortega**  
Argitaletxea: **Ibaizabal.**



### 'Maleta bat igogailuan'

Hectorrek A1 maila egin du euskaltegian, eta ikasturte osoa egunerokoan jaso du. Oso pozik dago Hector: lagun berriak egin ditu, eta kalean euskaraz hitz egiten hasi da. Biba! Baina ikasturtea ez da beti samurra izan: urduritasuna, poza, lotsa, frustrazioa, harrotasuna, haserre, maitasuna... emozio festa da euskaltegia! Eta eguneroko hau euskaltegitik bizirik ateratzeko formula.

**Andoni Tolosa**  
Argitaletxea: **Elkar.**



### 'Ata Pank eta Ate Punky, Bisita'

Burua jiratu zuenean, harrিতa geratu zen Ata Pank. Hantxe, patinete baten ondoan tente, txakurkume bat zegoen. Marroikara zen ilez, bular sendokoa, buruhandi samarra. -Nelo! -hots egin zuen Ata Pankek. -Nelo ez, Nelotxo -zuzendu zion txakur txikiak. -Neloren igual-iguala da -esan zuen Ate Punkyk. -Ez naiz igual-iguala. Ni gazteagoa naiz. Horregatik deitzen didate «Nelotxo» eta ez «Nelo». Zer egiten zuen Nelo honek? Nondik zetorren? Eta, batez ere, nora zihoan? Hori jakiteko, gure ahate heroiak espioi bihurtuko dira.


**Bernardo Atxaga eta Mikel Valverde**  
Argitaletxea: **Pamiela.**



### 'Marimotots euskara ikasten'

Behinola liluratu egin zuten euskararen hotsek, nola ikasi zuen kontatuko digu Marimototsek.

**Miren Amuriza eta Julen Tokero**  
Argitaletxea: **Elkar.**



# LOLA ELEFANTEA

Testua: **Jasone Osoro** • Marrazkia: **Kaiet Bengoetxea**

## Lau

**B** Zer esan nahi zuen sugeak? Nola lortuko zuten Lola musuen bitartez aldatzea? Animaliak marmarka hasi ziren.

- Eta musua emateko gerturazten naizenean zapaltzen banau? -esan zuen inurriak, kezkatuta.

- Eta musua emateko hegán hurbiltzen naizenean bere belarriekin astintzen banau? -galdegin zuen txoriak, urduri.

- Eta musua ematerakoan bere letaginaz ziztutzen banau? -bota zuen azeriak, dardarka.

- Musu guztiak lurrian

utziko ditugu berak har ditzan -azaldu zien sugeak.

- Hori dal Bikain! Zu bai azkarra!

Horrela, basoko animalia guztiak musuak lurrian utzi zituzten, ilaran. Zapore guztietako musuak ziren: limoizkoak, erregaliz zaporedunak, txokolatezkoak, espageti zaporedunak, baziren palomita zaporedunak ere, eta marrubizkoak, patata frijitu zaporekoak, pizza zaporekoak...

Gero, animalia guztiak ezkutatu egin ziren. Lolak musu haiek nola jaten zituen ikusteko.

Hantxe sumatu zuten



hurreraten elefantea. Lehenengo haize fina hasi zen, Lolaren belarriek mugitzean eragiten zuten haize gozoa. Gero, oinetan lurrikara txikia nabaritu zuten animaliek. Lolaren oinatzek eragiten zuten dardarizoa, danba eta

danba, bere oin erraldoiekin. Azkenik, doinu eder hura, Lolaren tronpak egiten zuen txistu bizia.

**Bi aste barru jarraituko du...**

OSTARNO  
mattin



mattin